

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Zazpi erakunde, Nafarroako Urrezko Domina eskuratzeko hautagai

Luze gabe, epamahaiak proposamena helaraziko dio Nafarroako Gobernuari

Ostirala, 2018.eko urriak 19

Hautagaitzak aurkezteko prozesua bukatu, zazpi erakunde hauek dira aurtengo Nafarroako Urrezko Domina eskuratzeko hautagaiak: Iruñeko Abokatuen Elkargo Txit Prestua, Nafarroako Fusilatuen Senideen Elkarte eta Alargunen Herriko Elkarte, Bilaketa Elkarte, Gogoa Foroa, Code Matrix SLU, Kriaren aurkako Adinekoen Koordinakundea eta Saray, Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarte.

Horien artean, luze gabe, Epamahaiak hiru entitate ere hautatuko ditu, eta Nafarroako Gobernuari helaraziko dizkio saria nori eman erabaki dezan. Golardo honetan, lehendabiziko aldiz, Nafarroako herritarrek parte hartu ahal izan dute hautagaitzak proposatzeko.

Iruñeko Abokatuen Elkargo Txit Prestua hiru bideren bitartez izendatu dute golardo honetarako. Alde batetik, Ángel Ruiz de Erenchun Oficialdegui senatari ohi eta elkargo profesional horretako dekan emerituak izendatu du, eskaerari 388 atxikimendu erantsiz. Nafarroako Merkataritza eta Industriako Ganbera Ofizialak ere Iruñeko Abokatuen Elkargoa aurkeztu du hautagai gisa, baita Elisa Viscarreten "Historia del M.I: Colegio de Abogados de Pamplona (1818-2018)" doktorego tesia zuzendu duen Mercedes Galán Lordak ere, lan akademikoaren epaimahaiaren izenean.

Nafarroako Fusilatuen Senideen Elkarte eta Alargunen Herriko Elkarte Comisiones Obreras sindikatuak proposatu ditu.

Bilaketa Elkarte deritzon Agoizko kultura erakundea Raquel Gutiérrez Torrejón aurkeztu du.

Gogoa Foroa deritzon kristautasunaren eta egungo munduaren arteko topagunea Ana Ansa Ascuncek, Ana Aliende Urtasunek eta Juan García Santamariak proposatu dute.

Santiago Sainz Caparrosok Code Matrix SLU enpresa tuterarraren hautagaitza aurkeztu du.

M. Gracia Moreno Solak, Nafarroako Ertabaida Sozialen Elkartearen (ANDES) izenean, Kriaren aurkako Adinekoen Koordinakundea proposatu du hautagai gisa.

Pertsona berak Saray Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkartearen hautagaitza helarazi dio Epamahaiari.

Parte hartze bidezko golardoa

Gogoratu behar da, lehendabiziko aldiz, Nafarroako Gobernuak herritarren partaidetzari ireki diola gizartea hobetzen, balio demokratikoak indartzen edota Foru Komunitatearen kanpoko irudia bultzatzen laguntzeagatik nabarmendu diren pertsonak, erakundeak, entitateak eta kolektiboak aldarrikatzea xede duen Nafarroako golardo gorenerako hautagaitzak aurkezteko prozesua.

Elkarteek, erakundeek eta era guztietako entitateek, baita pertsona fisikoek ere, hautagaitzak aurkezteko epea izan zuten (abuztuaren 29tik urriaren 15era bitartean), prozesuan Nafarroako gizartearen parte-hartzea bermatzeko asmoz.

Luze gabe, Epaimahaia bilduko da, aurkeztutako hautagaitzetatik hiru ere aukeratzeko helburuarekin. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollo buru, ondoko atal hauetako zuzendaritza nagusien arduradunak ditu epaimahaikide: Industria, Energia eta Berrikuntza; Errealitate Sozialaren Behatokia eta Gizarte Politiken Plangintza eta Ebaluazioa; Aurrekontua; Lehendakaritza eta Gobernu Irekia; Komunikazioa eta Erakundeekiko Harremanak; Hezkuntza; Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua; Vianako Printzearen Erakundea-Kultura; eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendua.

Epaimahaiak aukeratutako hiru hautagaitzak Nafarroako Gobernuari helaraziko dizkio, eta honek, Lehendakariaren ekimenez, bat hautatuko du datozen asteotan Gobernuaren Erabakiaren bitartez, dominaren kontzesioa onartuz.

Proposatutako hautagaietako bat aukeratzekoan, Epaimahaiak, oroz gain, honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan: herritarrek aintzakotzat jotzen duten ekintzabide pertsonal edo kolektibo eredugarria; gizartearen balio demokratikoen alde egindako ekarpena; elkartasunaren eta herritarren aldeko lanaren arloko ekintzen bultzada; gizartea bidezkoagoa eta solidarioagoa egiteko ibilbideak kultura, enpresa, gizarte eta bestelako jarduera-eremuetako alderdietatik begiratuta; emakumeen ekarpen soziala aldarrikatzen duen genero-parekotasuna; hezkuntza, osasuna, ingurumena eta gizarte-aurrerakuntzaren sustapena; eta Nafarroaren irudia kanpoan bultzatzea.

Saritutako erakundeari Nafarroako Urrezko Domina emango dio Nafarroako Lehendakariak abenduaren 3an, Nafarroako Egunarekin bat eginik, Nafarroako Jauregian egingo den ekitaldi solemne batean.